

Emakumearen irudia euskaltzaindiaren hiztegian

Esther LANDA TORRE

Euskal Filologian lizentziaduna Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV-EHU)

Genero *Mainstreaming*-eko berezilaria

[elandatorre@gmail.com]

Resumen: A pesar de no ser un lenguaje de género, en euskera también se reflejan las características y valores de nuestra sociedad patriarcal y androcéntrica; no sólo se reflejan, sino que, de igual manera, los transmitimos y perpetuamos. *Objetivo:* analizar los roles, los prototipos de mujer y hombre que se presentan en *Euskaltzaindiaren Hiztegia* y sus diferencias estadística. Hay que mencionar que el presente trabajo es un estudio cuantitativo preliminar, un acercamiento a lo que sería el análisis completo, por lo que la muestra utilizada no contiene todas las palabras de *Euskaltzaindiaren Hiztegia* susceptibles de estudio. *Resultados:* Los resultados mostraron que el tratamiento que se da a las mujeres y a los hombres en este diccionario no es paritario. Así mismo, se puede decir que la experiencia de las mujeres, sus trabajos, características, etc. aparecen en muchas menos ocasiones. Tampoco es muy equilibrado en el número de ejemplos utilizados para las palabras que expresan género femenino y los utilizados para las que expresan género masculino. Las diferencias son evidentes y la brecha entre los dos géneros se va ampliando según el análisis se va haciendo más específico, más concreto.

Palabras clave: Euskaltzaindiaren Hiztegia; género; lenguaje; femenino; diccionario.

Abstract: Although the Basque language is not a gender language, it reflects the characteristics and values of our patriarchal and androcentric society; moreover, it does not only reflect them, it also transmits and perpetuates them. *Aim:* to analyze roles, and prototypes of woman and man that are presented in *Euskaltzaindiaren Hiztegia* and their statistical differences. It should be mentioned that the present study is the first quantitative study, an approach to what would be a full analysis, so the sample used does not contain all the susceptible words of *Euskaltzaindiaren Hiztegia* that can be studied. *Results:* The results showed that the treatment of women and men given in this dictionary is not equal. We can also say that the experience of women, their jobs, features, etc. appear in many fewer occasions than man's ones. At the same time, the number of examples used to express the female words and those used for expressing male ones is not balanced. The differences are evident and the gap between the two genders is growing as the analysis becomes more specific, more concrete.

Keywords: Euskaltzaindiaren Hiztegia; gender; language; female; dictionary.

Izena duen orok izana du. Argi ikusi behar zuten gure arbasoek hitzaren garrantzia aipatu esaera zaharrear horrela adierazteko: izena daukan guztiak izana du; beraz, izenik ez daukan orok ez du izaterik, ez da existitzen. Eta hori izango litzateke, hain zuzen ere, kultura patriarkal batek bilatuko lukeen helburuetariko bat hizkuntzaren erabilera androzentrikoaren bidez: emakumeak isilaraztea, ezkutatzea, izena ez daukanak izaterik ere ez duelako.

Baina gure asabek ez ezik, gainerako kulturetakoek ere ikusten zuten hitzaren berebiziko garrantzia eta horrela islatu zuten hainbat eta hainbat testu zaharretan:

¹ *Hasieran bazen Hitza.
Hitza Jainkoarekin zegoen
eta Hitza Jainko zen.*

² *Hasieran
Jainkoarekin zegoen Hitza.*

³ *Gauza guztiak
beronen bidez egin ziren,
eta egindakotik ezer
ez da berau gabe egin...*

¹⁴ *Eta Hitza gizon egin zen [...]*

(Joan 1, 1-14)

Ezagunenetariko bat aipatzearren. Hitza Jainkoarekin egoteaz gain, Jainko bera zen; berak egin zituen gauza guztiak, are gehiago, gauzak ez liriateke ezer izango Hitza barik (*Izena duen orok izana du*, berriro ere).

Kultura eta garai ezberdinetako pentsamoldeak gorabehera, erabat argi da goena da hitzen, hizkuntzaren garrantzia, gure pentsamenduak gauzatzeko eta azaleratzeko baliabidea izatean ez ezik, gure arketipoak, rolak, pentsamenduak, sinesmenak eratzean, herriaren kulturaz jabetzean ere datzala. Munduaren ikuskeraz zehatz bat barneratzeko bidea da azken finean, norberaren kulturarena.

Moreno Fernández (1998) ikerlariak jasotzen duen moduan, Humboldtentzat hizkuntzak pentsamendua ahalbideratzen du eta herrialde baten izpiritu nazionalaren adierazgarria da, bere ideologia, izaera eta mundua ulertzeko modua. Moreno Fernándezen liburu berean azaltzen da nola beranduago, Benjamin Lee Whorf-ek eta Edward Sapir-ek, hizkuntza- antropologiaren sortzaileek, *determinismo linguistikoaren* eta *erlatibotasun linguistikoaren* printzipioak garatu zituzten. Determinismo linguistikoaren arabera, hizkuntzak pentsamendua zehazten du; hau da, gauzak barneratzeko eta gogoratzeko dugun moduan eragiten du hizkuntzak. Honen osagarria den erlatibotasun linguistikoak dioskuna hau-

xe da: hizkuntza ezberdinetako gramatika ezberdinek eragiten dutena da beren hitzunek munduaren ikuskera ezberdinetara hel daitezela, bakoitzak gramatika horiek ahalbideratzen duen behaketa eta ebaluazioei esker. Beste era batera esanda: hizkuntzak gure pertzepzioa handitu eta murriztu egiten du (koloreak adierazteko hiztegi zabal-zabala baldin badut, ohikoa den baino kolore gehiago hautemateko gai izango naiz). Beraz, hizkuntzak igorlearen pentsamenduak islatu ez ezik, eratu ere egiten ditu.

Bestalde, Adam Schaff-ek islaren teoria ere garatu zuen, zeinetan honakoa adierazten duen: «la lengua se concibe como producto de una praxis social que determina la visión que una sociedad tiene del mundo: la lengua refleja una realidad a la vez que crea una imagen de esa realidad» (Moreno Fernández, 1998). Eta hainbat teoriatik egin dudán ibilbidetxo hau bukatzeko, psikologia kognitiboaren prototipoen teoria (Casado G., 2002) aipatuko nuke: «de la teoría de los prototipos se deriva que empíricamente hay un conjunto de atributos o características que son compartidos por un grupo de sujetos en relación con lo que define un determinado objeto social, estas serían las características prototípicas».

Teoria ezberdinak, hainbat ikuspuntu, baina denek azpimarratzen dute gauza bera: hizkuntza, kultura eta pentsamendua estu lotuta daudela, ez dutela bata besteak gabe izaterik. Hirurak zaindu behar, beraz, ezinbestez. Oraingo lan honetan hirukote horretako hizkuntzaz arduratuko gara, euskeraz hain zuzen ere. Eta oraindik zehatzago izanik, Euskaltzaindiak oraintsu plazaratu duen *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* (2012; *EH* hemendik aurrera) ematen duen emakumearen irudiaz. Horretarako, ezer baino lehen, azterketa honen nondik norakoak azalduko dira; jarraian, erabilitako irizpideen berri emango da eta, bukatzeko, hizkuntzen erabileren inguruko hainbat kontzeptu gogoratuko, emakumeen irudia edo presentziarekin lotura dutenak eta berau hobeto ulertzen lagunduko dituztenak: hizkuntza androzentrikoa, hizkuntza sexista, itxurazko bikoteak, jauzi semantikoak... Esan beharra dago, hizkuntza bat, edozein dela ere, ez dela sexista *per se*, baina bere erabilera, bai, izan daitekeela. Agurtzane Juanenaren hitzetan (Álvarez Uria, 2004): «kultura sexistatik mintzaira sexista dator eta mintzaira sexistak kulturaren sexismoa iraunarazten du». Zaindu beharko genuke, beraz, gure hizkuntzaren erabilera. Ondo zaindu beharko, gainera.

Lanaren nondik norakoak

Lan honen helburua hauxe da: Euskaltzaindiak 2012an plazaratutako hiztegian agertzen den emakumezkoaren irudia aztertzea, izan daitezkeen haren irudia eta gizonezkoaren irudiarekiko aldeak azalaraztea. Horretarako, beraz, *EH* era-

bili da: lan hau buru dadin bertatik ateratako emakumezkoak zein gizonezkoak adierazten dituzten 180 hitz osatzen duen datu base bat hartu da oinarritzat (hitz horien zerrenda bukaeran agertzen den eranskinean ikus daiteke). Kontuan hartu behar da honako hau oraingoz hurbiltze lana dela, nolabait esateko, beraz, erabilitako laginean ez dira egongo *EHn* egon daitezkeen generoa adieraz dezaketen hitz guztiak. Ondo legoke hurrengo ikerketek *EH* bere osotasunean hartzea.

Nire abiapuntua da euskaran ere gure jendarte patriarkal eta androzentriko honen ezaugarriak islatzen direla, nahiz eta genero hizkuntza ez den; euskaran islatu eta euskaraz transmititzen, iraunarazten ditugula. Lan honetan, beraz, aztertu nahi dena da zeintzuk diren *EHn* agertzen diren emakumezko eta gizonezkoen rolak, prototipoak. Ezin dugu ahaztu, hiztegiak kontsulta liburuak direla, edozeinek begira dezakeen kontsulta liburua: «Euskaltzaindiaren Hiztegia ez da hizkuntzalarientzat, are gutxiago hiztegitentzat, baizik eta idazle, irakasle edo teknikarientzat, futbolari nahiz ekonomialarientzat» (Euskaltzaindia, 2012, 8 or.), *EHk* berak esaten duenez. Beraz, kontu handiz ibili beharko litzateke, hiztegiak ez baitira errealitatearen isla soilik: beren definizioen bidez munduaren ikuskeraz zehatza transmititzen da, balore eta ideologiaz beteta. Nahi eta ez, hiztegitagileak pertsonak baitira (bakoitza bere balore, ideologia eta pentsaerarekin).

Hasi aurretik, hiztegi honen hitzaurrean hiztegitagileek adierazitako hainbat ideia azpimarratzea gustatuko litzaidake: «Adibideei dagokienez, esan behar dugu arlo horretan egin dugula ahaleginik handiena [...] tradizio idatziko joera nagusiei men egiten, eta joskeraz maizkoenak eta ongien dokumentatuak jasotzen. [...] Nola nahi ere, irakurleak dakikeen bezala, gaur egun, *Orotariko Euskal Hiztegiako* adibideteagiri eta egungo euskararen corpusei esker, helburu hori fidagarritasun maila aski altu batez bete daiteke [...]» (Euskaltzaindia, 2012, VIII-IX or.). Atariko horretan ere ondorengo hau adierazten da: «Orobat esan daiteke *Zah.*, g. er. eta g. g. er. marka duten hitzez [...] Ildo honetan esan behar dugu Euskaltzaindiak marka horiek egungo egoerara egokitu egin beharko dituela bere Hiztegi nagusian hurrengo edizioaren batean» (Euskaltzaindia, 2012, VIII or.). Aurrerago aukeraturako sarreren azterketa egiten dugunean, hitz hauek adierazten dizkiguten ideiak berriro aipatuko ditugulakoan nago.

Erabilitako irizpideak

Jakin badakigu euskara ez dela genero hizkuntza, baina, era berean, ezin da ukatu gure hizkuntzak badituela beste baliabide batzuk generoa adierazteko hiztegi, semantika edo pragmatikaren bidez, besteak beste: *ama / aita; gizagaixo / gajo*;

emagald / *gizagald*; *mari*; *itsasgizon*, eta abar luze bat. Oraingo lan hau egiteko, berez generoa adierazten duten hitzak (*emakume*, *gizon*, *erregina*, eta abar), *giza*-, *ema*-, *anai*-, *eme*-, *-gizon*, *-andre*, *jaun*- osagaiekin sortutako hitzak edo eta *gizon* / *emakume*arekin sortutako hainbat hitz konposatu erabili dira.

*EH*tik hartutako 180 hitz horiek, hiru mailatan edo aztertu izan dira:

- Orokorrean.
Datu orokorrak atera eta aztertu dira, alde batetik emakumezkoei dagozkien hitzak eta bestetik gizonezkoei dagozkienak alderatuz. Zehatzago, genero bakoitzaren adiera eta adibide kopurua begiratu da, eta baita bi generoak elkarren ondoan esaldi berean agertzen direnean (maila bereko egituretan: *neba-arrebak*, *mutila eta neska*, eta horrelakoetan) zein ordenatan agertzen diren ere: Gizonezkoa + Emakumezkoa (G + E) ala Emakumezkoa + Gizonezkoa (E + G); hau da, zein den ordena bakoitzaren maiztasuna.
- Taldeka.
Aurrekoa egin ondoren, hitzak bikoteka banatu dira; hau da, teoriarik genero batean eta bestean baliokideak edo izan beharko lirakekeen hitzak elkarrekin aztertu dira ea ematen zaien tratamendua antzekoa den ala ez ikusteko, maila berekoa, espero zitekeen moduan («*jainkosa*» / «*jainko*», kasu). Hau egitean hainbat hitzen (eta ez gutxiren) sinonimoak ere aurkitu direnez, ezinbestekoa izan dut sinonimoekin taldeak egitea guztiak batera alderatzeko («*mutxurdin*», «*neskazahar*» / «*donado*», «*mutilzahar*», adib.). Maila honetan azterketa kuantitatibo ez ezik, kualitatibo ere egiten da; hau da, adieretan agertzen diren emakumezko zein gizonezko ezaugarriak, jarrerak, gaitasunak, eta abar aztertzen dira.
- Bikoteka.
Alderaketa objektiboago eta zehatzago izan dadin, hirugarren maila honetan hitzak bikoteka jarri dira, sinonimorik gabe, genero batean eta bestean itxuraz baliokideak diren hitzak. Horretarako, sinonimoen artetik bere lehenengo adieran pareko edo antzeko definizioa daukan hitza aukeratu da (aurreko kasuan, adibidez, «*neskazahar*» / «*mutilzahar*»). Behin hitzak bikoteka antolatuz gero, hiru datu alderatu dira: emakumezkoek zenbat adiera zuten guztira eta zenbat gizonezkoek; zenbat adibide (guztira, ere); eta, bukatzeko, zenbat bikotetan zituzten emakumezkoek ala gizonezkoek adibide edo kopuru gehiago.

Perspektiba orokor honen ondoren, aurkezten den lanaren egitura azalduko dut jarraian. Lehenengo artikulua honetan datu hutsak, zenbakiak, emango dira (osoak eta portzentajeak) koadro eta grafikoetan aurkeztuko direlarik argiago ikus daitezkeen. Jarraian, datuen azterketatik ondorio orokor batzuk ateratzen saiatuko naiz.

Azterketa kuantitatibo hau bukatuz gero, azterketa kualitatiboarekin burutuko da honako lan hau hurrengo bigarren zati batean, horretarako hitzak taldeka

aztertu eta komentatuko direlarik, sinonimoak barne. Hori egiteko, bederatzi kategoria-eremu zehaztu dira berauen arabera sailkatzeko taldeak:

1. *Lanbideak* adierazten dituzten sarrerak.
2. *Senidetasuna* adierazten duten sarrerak.
3. *Genero* desberdinak adierazten dituzten sarrerak.
4. *Ezaugarri fisikoak* eta *Izatekoak* adierazten dituzten sarrerak.
5. *Portaera* adierazten duten sarrerak.
6. *Jantziak* adierazten dituzten sarrerak.
7. *Izaki Gorenak* adierazten dituzten sarrerak.
8. *Gorputz Atalak* adierazten dituzten sarrerak.
9. *Bestelakoak*.

Eremuen hurrenkera bakoitzak duen hitz kopuruak ematen du, hau da, hitz gehien duen eremutik hasita gutxien daukanera.

Arlo bakoitzean sartu diren hitzei dagokienez, ohar pare bat egitea gustatuko litzaidake. Alde batetik, eremuak bere zentzu zabalean (oso zabalean bazuetan) hartu direla behar baino askoz gehiago sor ez zitezen; hori dela eta, adibidez, sartu da **sorgin** *Portaerak* eremuan. Bestalde, lan handia izan dut **emagald**u (eta bere sinonimoak) zein eremutan sartuko nuen erabakitzeko: argi dago oso eztabaidagarria izan daitekeela, eta zenbait emakumerentzat mingarria ere izan daitekeela, baina hitzaren definizioa kontuan izanda, berau ere lanbideen artean agertzea egokiena dela iruditu zait.

Hainbat kontzeptu

- *Androzentrismoa*:

Emakumezkoa, era batera edo bestera, ezkutatzea edo desagerraraztea da. Gizonezkoak guztiaren ardatz eta erreferentzia dira, gauza guztien neurria eta emakumezkoak beren menpekoak. Eredu aldaezina da (estereotipoa). Errealitatea gizonezkoen ikuspuntutik enfokatzen da eta hortik ateratako emaitzak ontzat ematen dira pertsona guztientzat (unibertsalak).

- *Estereotipoa*:

Talde edo sozietate batek onartzen ohi duen irudi edo ideia bat, aldaezina dena. Hizkuntzak estereotipo hauek errepikatzen eta, beraz, sexismoa iraunarazten laguntzen du.

- *Generoa*:

Konstruktua sozial eta kulturala da. Honen arabera, jendarteak portaera-ezaugarriak, psikikoak, jarrerazkoak, kulturalak, sozialak eta gaitasun ezberdinak esleitzen dizkio gizonezkoiei eta emakumezkoiei, jaio baino lehenagotik; estereotipo hauek hezkuntza formala (eskola) eta ez formalaren bidez (familia, lagunak, he-

dabideak, erlijioa, jokoak...) iraurarazten dira. Pertsonak ez du generoa aukeratzeko, baizik eta hezkuntza eta sozializazioaren bidez barneratzen du. Generoaren bidez, maskulinoa eta femeninoa erabat berezitatea geratzen dira.

- *Hizkuntza sexista:*

Nolako sexua, halako tratamendua ematean datza (emakumeak adingabeen modura); ezaugarri ezberdinak irudikatzea gizonentzat (adimenari eta indarrari lotuak) eta emakumeentzat (zaintzari, estetikari lotuak); emakumea deskalkifikatzeko aipatzea... Emakumeek egiten dutena, direna (beren eskarmentua) gaitzesten da, balioa kentzen zaio.

Jende askok uste du euskara ezin daitekeela hizkuntza sexista izan, genero hizkuntza ez baita. Baina ez da ahaztu behar beste modu batzuetan ere ager daitekeela genero bereizketa: *giza-*, *ema-*, *anai-*, *eme-*, *-gizon*, *-andre* osagaiekin sortutako hitzak; erdaretatik hartutako kalko eta maileguak (*aitak*, «gurasoak» esateko; *antropologo*, *fisiko*... maileguak maskulinoan hartzen ohi dira), adibide bakan batzuk aipatzearen. Gainera, euskera ez da mundu isolatu batean bizi, inguruan beste hizkuntza batzuk ditu (frantsesa eta espainiera hurbilenak) eta berauek oso erabilera sexista erakusten dute. Ezin dugu pentsatu hurbileko auzokide horiek ez digutela inolako eraginik utzi gurean; are gehiago, euskaldunok elebidunak gara (behintzat): denek espainiera edo (eta) frantsesa ere badakigu. Hizkuntza batean erabilera sexista egiten dugula, baina, ez dakit zer nolako eskizofreniari esker, bestean ez dugula egiten pentsatzen duenik ezin daiteke egon. Gure kultura androzentrikoa da, sexista; beraz, gure mintzaira ere hala beharrez.

- *Jauzi semantikoa:*

Genero gabeko hitza erabiltzen denean, baina gero aurrerago, testuinguru berean, berriro errepikatzen denean bere zentzu markatua, zehatzean, erabiltzen da; hau da, balizko genero gabeko hitz hori ez da horren neutroa («**andereño** 2 Eskoletako maistra. *Irakasleak eta andereñoak*»).

- *Maskulino generikoa:*

Gizonezko hitzak balio unibertsalarekin erabiltzean datza, neutroak izango balira bezala. Femeninoa, berriz, beti da termino markatua, balio murriztailearekin.

- *Patriarkatua:*

Familia-sistema, eta sistema soziala, ideologikoa eta politikoa zeinen bidez gizonezkoek erabakitzen duten zein den emakumezkoak beraien menpe egon daitezen bete behar duten rola. Pentsaera honen arabera, maskulinoa boterean eta hiltzeko gaitasunean oinarritzen da eta femeninoa bizia emateko gaitasunean. Irudimenaren kategoriak dira, sinboloak, horrexegatik da hain zaila irudi hauek, ideia hauek, aldatzea.

- *Sexismo lexikoa:*

Sexu bakoitzaren ohiko rol edo estereotipoarekin bat ez datozen ekintzak, baloreak, gaitasunak edo jarrerak izendatzeko hitzen eza:

- a) bikoterik gabeko hitzak: sexu baterako baino erabiltzen ez direnak («**etxekoandre**», «**apaiz**», «**mari**»...).
- b) itxurazko bikoteak: generoen arabera esanahi ezberdinak dituzten hitzak («**ematar-gizatar**», «**emagaldur-gizagaldur**», «**jostur-jostun**»...).

Ohar batzuk hasi baino lehen

- Sarrerak eta adierak *EHn* agertzen diren moduan idatzi ditut: sarrera beltzez eta adiera bakoitza zenbaki batez. Adibideak ere berdin agertzen dira, letra etzanaz.
- Hitz batzuk talde edo eremu bakar batean agertu beharrean, bitan ager daitezke: bai genero biei dagokielako (**bulartsu**, adibidez), bai bi eremutan erabil daitekeelako (**galai**, kasu, generoa eta ezaugarri fisikoa adierazteko). Ahalik eta gutxien izan daitezen saiatu naiz.
- Hitzak bikoteka edo eta taldeka agertu arren, badaude parekatu ezin diren hitzak beste generoan baliokiderik ez dutelako (sexismo lexikoa, beraz). Hitz horiek azterketa kualitatiboan komentatuko dira. Datuei dago kienez, datu orokorretan baino ez dira aintzat hartzen; ez dira ez taldeka ez bikoteka egindako datuen azterketetan sartu.
- Adierak zenbatzean, kontuan izan dira ere esapideak, hitz konposatuak edo horrelakorik agertzen bada. Esate baterako, **alaba** sarrerak hiru adierarekin agertzen da datuen azterketa egiten denean adiera bat eta bi esapide edo (**alaba besoetako**, **alaba ponteko**) dituelako.

Azterketa kuantitatiboa (datuak)

Lana gauzatzeko erabili diren 180 hitzak aztertu ondoren, honako datu orokor hauek atera daitezke azterketa maila bakoitzean:

Taula 1. Datu orokorrak

	Emakumezkoak N (%)	Gizonezkoak N (%)	<i>p</i> balorea*
Hitzak N= 180	90 (% 50)	90 (% 50)	
Adierak N= 358	178 (% 49,72)	180 (% 50,28)	<0,01
Adibideak N= 856	328 (% 38,32)	528 (% 61,68)	

* Estatistikoki, ezberdintasunak esanguratsuak dira: $\chi^2=17,57$; $p<0,01$

Taula 2. Datuak taldeka

	Guztira			Nork gehiago (51 talde)			
	Emakumezkoa	Gizonezkoak	p balorea*	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Berdin	p balorea**
Adierak 282	129 (% 45,74)	153 (% 54,25)	<0,01	15 (% 29,41)	21 (% 41,18)	15 (% 29,41)	>0,05
Adibide 720	269 (% 37,36)	451 (% 62,64)		11 (% 21,57)	30 (% 58,82)	10 (% 19,61)	

* Guztira: $\chi^2=5,6$; $p<0,01$; beraz, ezberdintasun esanguratsua hau ere.

** Taldekako kasuan ez da hala gertatzen: $\chi^2=3,20$; $p>0,05$. Taldeka antolatze honek (antolaketa bera-gatik ziur asko) ez du ezaugarri hori. Baina aurrerago, ordea, azterketa kualitatiboa eta zehatzago egi-ten denean, ikus daiteke nola kasu honetan ere agertzen diren ezberdintasunak esanguratsuak diren.

Taula 3. Datuak bikoteka (taldeetatik sinonimoak kenduta)


	Guztira			Nork gehiago (57 bikote)			
	Emakumezkoak	Gizonezkoak	p balorea*	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Berdin	p balorea**
Adierak 242	106 (% 43,80)	136 (% 56,20)	=0,05	13 (% 22,81)	18 (% 31,58)	26 (% 45,61)	<0,01
Adibide 652	236 (% 36,20)	416 (% 63,80)		10 (% 17,54)	34 (% 59,65)	13 (% 22,81)	

* Ikus 6 oharra. Guztira: $\chi^2=4,0$; $p=,051$.

** Bikoteka: $\chi^2=9,65$; $p<,01$.


Aurreko koadroak ikusita, lehenengo eta behin adierazi daitekeena da alderaketa zenbat eta zehatzago izan bi generoen artean dagoen aldea handiagoa egiten dela. Atalez atal hartuko ditugu hobeto ikusteko:

Irudia 1. Emakumezko eta gizonezko hitzak guztira (adierak)




Adieren kasuan, ondo ikusten da nola bi generoen aldeko tartea handitzen den azterketa zehatzago egiten den heinean: hitz guztiak kontuan hartuz gero, emakumezko eta gizonezkoen arteko alderik ez dago, baina hurrengo azterketa-mailako datuetan ikus daiteke aldea jada % 8,51ekoa dela eta azterketa maila zehatzagokoak ikusita, sinonimo gabeko bikoteetakoak, hain zuzen, % 12,4kora heltzen da bi generoen arteko tartea. Kasu guztietan, tarte txikia zein handia izan, gizonezko hitzek dute adiera kopuru gehiago emakumezko hitzek baino.

Irudia 2. Emakumezko eta gizonezko hitzak guztira (adibideak)




Adibide-kopurua kontuan hartzen denean askoz garbiago ikus daitezke bi generoen aldeko ezberdintasunak, beti gizonezkoen alde: hiru mailetan dauden ezberdintasunak nabari-nabariak dira, oso adierazgarriak eta begi bistakoak. Edonola ere, datu hauetan ikus daiteke nola emakumezko eta gizonezkoen arteko tartea handiagotzen den ere azterketa-maila zehatzago egiten denean: hitz guztiak kontuan hartuta, % 23,26ko tartea; taldeka, % 25,28koa; eta sinonimo gabeko bikoteka, % 27,6.

Irudia 3. Emakumezko eta gizonezko hitzak taldeka eta bikoteka (adierak)



Emakumezko eta gizonezko baliokideak bikoteka edo taldeka (sinonimoak aintzat hartuta) jarriz gero, hirugarren aukera sortzen zaigu: talde batzuetan, emakumezko terminoek izan ditzakete adiera-kopuru handiagoa; beste batzuetan, berriz, gizonezkoek; eta hainbatetan, adiera-kopuru bera izan dezakete emakumezko eta gizonezko hitzek. Bai adieren kasuan, bai adibideetan, azpimarratzekoa da emakumezkoek adiera kopuru handiagoa duten kasuek eta bi generoek kopuru berdina duten kasuek oso portzentaje antzekoa dutela normalean, salbuespen bat izan ezik: sinonimorik gabeko bikoteetan agertzen den adiera-kopurua, orduan, berdinak diren kasuak gehiago direlarik (% 45,61). Taldekako datuak ikusiz gero, berriro ere agertzen zaizkigu gizonezko terminoak adiera-kopuru handiagorekin (% 41,18).

Irudia 4. Emakumezko eta gizonezko hitzak taldeka eta bikoteka (adibideak)



Adibideak guztira hartzen zirenean bezala, taldeka edo bikoteka hartzen direnean ere nabari-nabaria da emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldea adibide-kopuruak begiratzen direnean: are gehiago, emakumezkoek adibide kopuru handiagoa duten portzentajea eta adibide kopuru bera dutenen portzentajeak gehituta ere ez dira gizonezko kopuruetara heltzen (% 41,18 taldeka eta % 40,35 bikoteka). Goian aipatu den bezala, deigarria da emakumezko portzentajeak eta emakumezko eta gizonezkoen hitzek adibide kopuru bera dutenena oso parekoak izatea.

Azkenik oso adierazgarria den datu bat komentatu beharra dago, lehenengo azterketa mailan agertzen dena:

	E + G	G + E
Adibideak:		
E+G / G+E *	26 (% 22,03)	92 (% 77,97)
N= 118		

*G= Gizonezkoak; E= Emakumezkoak

180 hitz hauetan agertzen diren 856 adibidetatik 118 adibidetan agertzen zaizkigu bi generoak elkarren ondoan perpausa berean (adieretan zein adibideetan): «*Aitak edan lehenik, gero semeek, adin arau, lerroan, gero alabek, azkenik, amak*», «*Bikiak izan ditu: mutila eta neska*», «*Agripa eta Berenice anai-arrebak*» eta tanke-
ra horretakoak. 118 horietatik, 92an (hau da, % 77,97) gizonetzkoa emakumez-
koaren aurrean (G + E) agertzen da; berriz, emakumezkoak gizonetzkoen au-
rrean (E + G) 26 bider (% 22,03) baino ez. Hau da, hiru bider baino gehiagotan
lehenesten zaio gizonetzkoa emakumezkoari.

Ondorioak

Datu hauetatik guztietatik hainbat gauza ondoriozta daitezke:

- Edozein dela azterketa maila, gizonetzko hitzek beti izaten dute adiera zein adibide-kopuru handiagoa emakumezkoen hitzek baino. Salbuespen bakarra, adiera-kopurua bikoteka aztertzen den kasua, baina horretan ere ez da emakumezkoa gehiengo duena, baizik eta bi generoek berdin.
- Lehenego begi-bistan bi generoak nahiko parekoak iruditu arren, xehe-
tasun handiago batez aztertzen denean ikus daiteke gizonetzko hitzen aldeko tartea beti zabaltzen dela, handiena bi generoko baliokideak izan beharko liratekeen hitzak (**ama / aita, andre / jaun, maistra / maisu...**) alderatzen direnean agertzen zaigularik.
- Adibide-kopururaren kasuan bi generoen arteko ezberdintasun hori nabarmena eta oso deigarria da, askotan gizonetzkoak emakumezkoen bikoitza edo gehiago baitira. Egia esan, ez dirudi honek funtsezko arrazoi garbirik duenik, are gutxiago, *EH*aren Atarikoan «joskera-eredu guztien argazki moduko bat eratzen saiatu gara, eredu bakoitzari bere pisua, maiztasunaren edo egokitasunaren arabera, ematen saiatuz...» (Euskaltzaindia, 2012, IX or.): **lehengusina / lehengusuk**, esate baterako, joskera-eredu antzekoak (edo berdinak) izan arren emakumezko hitzak 2 adibide baino ez ditu eta gizonetzkoak, berriz, 8; **neska** hitzak 8 adibide, **mutil** hitzak 17 dituelarik; edo **santak** 4, baina **santuk** 26, bakan batzuk aipatzearren. Gainera, *Orotariko Euskal Hiztegia* (Euskaltzaindia, 2011) begiratu gero, ikus daiteke nola hitz hauek ez duten elkarren artean hainbesteko ezberdintasunik (*Orotariko Euskal Hiztegia* *EH*ren erreferentziatariko bat izanik ere, deigarriak dira bien arteko hainbat ezberdintasun generoari dagokionez).
- Bi generoak perpaus berean elkarren ondoan agertzen direnean (sintaktikoki maila berekoak direnean), gehienetan jarraitzen den hurrenkera Gizonetzkoa + Emakumezkoa da, hau da, gizonari dagokion hitza

emakumeari dagokion hitzaren aurretik agertzen zaigu maiztasun handi batean: hamar kasutako ia zortzitan horrela agertzen da. Lehentasuna, beraz, gizonaekoa.

- *EH* honen oinarrietako bat *Orotariko Euskal Hiztegia* izanik, ez da oso ondo ulertzen zergatik ez diren hartu ere beste generoko baliokideak bertan hala jasota agertzen direnean; eta ez da kasu bakan batean gertatzen¹: *ugazama /ugazaita**; *etxeakoandre / etxegizon**; *senardun / emastedun**; *alabaorde* / semeorde*; *alabatsako* / semetzako...* Ez litzateke orekatuago izango, hitz berri bat sartzeko erabakia hartzen denean, bere beste generoko baliokidea (hala existituko balitz) ere sartzea aldi berean? Nahiz eta, seguruenik, gutxiagotan erabilitakoa izan, edo eta batzutan itxurazko bikoteak baino ez izan. Hizkuntzaren baliabide guztiak erabili beharko genituzke errealitatea bere osotasunean adierazi ahal izateko; hizkuntzak eskaintzen dizkigun aukera guztiak (hiztegiarenak kasu honetan) gure esku izan beharko genituzke, ezagutu beharko genituzke, esan nahi dugunari forma egokia eman diezaiogun hitzen bidez. Arestian aipatu dudan bezala, hizkuntzak igorlearen pentsamenduak islatu ez ezik, eratu ere egiten ditu; hizkuntzak gure pertzepzioa handitu eta murriztu egiten du. Beraz, guk geuk geure hizkuntza murrizten badugu dagoeneko existitzen diren bi generoetako hitz bat ez aukeratuz, geure pertzepzioa ere murrizten ari garela ezin dugu ahaztu. Ekidin dezagun.

Hau ikusita, argi dago emakumearen trataera ez dela gizonaren trataeraren parekoa egunero eskoletan, etxeetan eta beste hainbat lekutan erabiltzen den gure hiztegi honetan. Argi dago ere, kopuruaren aldetik behintzat (eta azterketa kualitatiboko emaitzak izan arte bestelako ondoriorik atera gabe) emakumearen eskarmentua, lanbideak, ezaugarriak, eta abar askoz gutxiago azaltzen direla, ixilarazten direla. Gogoan izan behar dugu hiztegian agertzen diren hitzak, baraien definizioak..., ideologia, pentsaera zehatz bat transmititzeko baliabidea dela; gogoan izan behar dugu hiztegia pertsonen egiten dutela beren printzipio eta balore zehatzekin eta horren arabera jokatu dutela nahi eta ez. Ardura handiko lana, ez garrantzi gutxikoa.

Hiztegiak hiztegiaren hitzaurrean adierazten duten egungo egoerara egokitze horren beharra dago, beraz, handia gainera, gure jendartearen ehuneko zati handi baten presentzia azalarazi behar baitugu: emakumeena, hain zuzen ere. Emakumeek egiten dutenari, direnari (beren eskarmentuari) dagokion lekua emateko, has gaitzen gure hizkuntza zaintzen inor mespretxatu edo izkuta

1. Ondoko ikur hau (*) duten hitzak *Orotariko Euskal Hiztegia*n jasota daude, baina *EHn* ez.

ez dezagun. «Tradizioa»k berebiziko garrantzia duela ez dago ukatzerik, baina, era berean, bere izenean edo, mendeetan zehar jendartearen zati handi horrek (Eustat-en 2013ko datuen arabera², Euskadiko Autonomia Erkidegoaren populazioaren erdia baino gehiago, hain zuzen: % 51,27) jasan duen egoera bidegabeko bat irauraraztea ere ez dela zilegia ezin da ukatu.

Eranskina

ABADESA	ABADE
AHIZPA	ANAIA
ALABA	SEMEA
ALABABITXI	SEMEBITXI
ALU	ZAKIL
OBULUTEGI	BARRABIL
	BUZTAN
	PITXO
	PITILIN
	POTRO
	KOSKABILO
AMA	AITA
AMABITXI	AITABITXI
AMAGINARREBA	AITAGINARREBA
AMONA	AITONA
AMATXI	AITATXI
AMAMA	AITAITA
AMANDRE	AITAJAUN
AMAORDE	AITAORDE
UGAZAMA	ugazaita*
ANDRE	JAUN
ANDERE	
EMAKUMEZKO	GIZONEZKO
ANDRAZKO	
ANDREGAI	GIZONGAI
ARREBA	NEBA
ATORRA	ALKANDORA
DAMA	GALAI
DUKESA	DUKE
EMAGALDU	GIZAGALDU
MARITZAR	

2. ik. Bibliografia.

PROSTITUTA	
PUTA	
URDANGA	
EMAKUME	GIZON
EMAZTEKI	
EMAKUMETU	GIZONDU
EMATXAR	GIZATXAR
EMAZTE	SENAR
EMAZTEGAI	SENARGAI
EME	AR
EMETASUN	GIZONTASUN
ERREGINA	ERREGE
ERRIENTSA	ERRIENT
GAJO	GIZAGAIXO
GIZAJO	
GONA	GALTZA
GONADUN	GALTZADUN
IZEBA	OSABA
JAINKOSA	JAINKO
JOSLE	JOSTUN
KOINATA	KOINATU
MOJA	FRAIDE
LEKAIME	
SERORA	
	APAIZ
LEHENGUSINA	LEHENGUSU
	APAIZTU
SERORATU	FRAIDETU
	FRAIDETZA
	FRAIDEGO
SERORATASUN	APAIZTASUN
MOJATEGI	FRAIDETEGI
SERORATEGI	APAIZGAITEGI
	APAIZETXE
	APAIZGAI
SERORAGAI	FRAIDEGAI
MOJAGAI	
MAISTRA	MAISU
MUTXURDIN	DONADO
NEKAZAHAR	MUTILZAHAR
NESKA	MUTIL
NESKATO	MUTIKO

NESKATILA	
NESKATXA	
NESKAME	MORROI
NESKAZAHARTU	MUTILZAHARTU
NESKAMETZA	MORRONTZA
	MUTILGO
PANPOXA	MORROSKO
SANTA	SANTU
	SAN
UGAZABANDRE	UGAZABA
amatu*	AITATU
ANDEREÑO	
BIRJINA	
BIRJINTASUN	
BULARTSU	
DAMATXO	
EMAGIN	gizagin*
EMAGINTZA	
ETXEKOANDRE	etxeke gizon / etxegizon*
	JAINKOZKO
MARI	
	MOTEL
PANPINA	gizonkila*
PINPIRIN	
PERTXENTA	
TXATXALA	
SENARDUN	emaztedun*
SENARGABE	emaztegabe*
SORGIN	
SORGINDU	
SORGINKERIA	
SORGINTASUN	
SORGINTZA	
	BASAGIZON
	ELIZGIZON
	GIZA
	GIZAKUME
gizalaba*	GIZASEME
emakumekeria*	GIZONKERIA
	GIZONKI
	GIZONTXO
	ITSASGIZON
	LEGEGIZON

	MARINEL
	MUTILDU
	OLAGIZON
plaza-neskatila*	PLAZAGIZON
alabaorde*	SEMEORDE
alabatasun*	SEMETASUN
alabatxo*	SEMETXO
alabatzako*	SEMETZAKO

*Letra etzanaz eta minuskulaz, *Orotariko Euskal Hiztegia*n agertzen diren baliokideak (itxurazkoak ala ez), baina Euskaltzaindiaren Hiztegia jasota ez daudenak.

Bibliografia

- ÁLVAREZ URÍA, A. (2004-03-08): *Euskara hizkuntza sexista al da?* [Eskuragarri (2014-08-05): http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1078235452].
- ARANA, Anuntzi (2005-10-05): *Denok JENDE eta denen artekoa JENDARTEA*. [Eskuragarri (2014-08-05): http://www.erabili.com/zer_berri/galdezka/1128146364/1128547592].
- BARQUÍN, Amelia (2008): *Euskararen erabilera ez sexista*, Gasteiz, Emakunde, Eusko Jaurlaritza.
- BENGOECHA BARTOLOMÉ, Mercedes *et al.* (2006-2009): *Efectos de las políticas lingüísticas antixixistas y feminización del lenguaje*, Madril, Instituto de la Mujer (Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad).
- BIBLI ELKARTEA: *Sarrera (1, 1-51). Jainkoaren hitza gizon egin*. [Eskuragarri (2014-08-05): <http://www.biblija.net/biblija.cgi?set=21&cl=eu&pos=1&qall=1&idq=0&idp0=35&m=Jn%201&hl=Jn%201%2C1>].
- CASADO G., E. (2002): *Prototipos de la interacción pedagógica*. [Eskuragarri (2014-08-05): http://www.scielo.org.ve/scielo.php?pid=S0798-97922002000200004&script=sci_artext].
- EUSTAT: *Euskal Aeko biztanleria jaiotze urteari jarraiki, Lurralde Historiko eta sexuaren arabera*. [Eskuragarri (2014-08-05): http://eu.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0011400/ti_Poblacin_de_la_CA_de_Euskadi_por_ao_de_nacimiento_según_el_territorio_historico_y_elsexo_2013/tbl0011424_e.html].
- EUSKALTZAINDIA (2011): *Orotariko Euskal Hiztegia (2. arg.)*. [Eskuragarri (2014-08-05): http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_content&view=article&id=276&Itemid=413&lang=eu].
- (2012): *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, Andoain, Elhuyar Fundazioa, Elkarlanean, Euskaltzaindia.
- LLEDÓ CUNILL, Eulália; CALERO FDZ., M^a Ángeles y FORGAS BERDET, Esther (2004): *De mujeres y diccionarios. Evolución de lo femenino en la 22.ª edición del DRAE*, Madril, Instituto de la Mujer (Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales).
- MORENO FERNÁNDEZ, F. (1998): *Principios de sociolingüística y sociología del lenguaje*, Barzelona, Ariel.
- REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (2001): *Diccionario de la lengua española*, 22. arg., Madril, Espasa Libros.

SARASOLA ERRAZKIN, Ibon (2006): *Euskal Hiztegia*, Donostia, Elkarlanean.

VARGAS, Ana *et al.* (1998): *Lo femenino y lo masculino en el Diccionario de la Real Academia Española*, Madril, Instituto de la Mujer (Ministerio de Trabajo e Inmigración).

XX. mendeko Euskararen Corpus estatistikoa. [Eskuragarri (2014-08-05): <http://xxmendea.euskaltzaindia.net/Corpus/index.jsp?hasiera=false&aurreatua=true&atala=true>].

ZUBIRI IBARRONDO, I. (2012): *Euskal Atzizkibide Osoa*, Bilbo, Ikasbook.